# IRURTZUNGO UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA
# *ACTA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN DE IRURTZUN*

Irurtzunen, bi mila eta hogeita bateko azaroaren 2an, arratsaldeko 19:30ak direnean, aldez aurretik legeak agintzen duen moduan deituta, Irurtzungo udaletxeko osoko bilkuren aretoan udalbatza elkartu da ez - ohiko bilkura egitearren, Aitor Larraza Carrera jauna alkate - lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

*En Irurtzun, siendo las 19:30 horas del día 2 de noviembre de dos mil veintiuno se reúne en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial la Corporación del Ayuntamiento de Irurtzun al objeto de celebrar sesión extraordinaria, previamente convocada en forma legal, bajo la Presidencia del Alcalde - Presidente, Don Aitor Larraza Carrera, con la asistencia de los siguientes Concejales y Concejalas:*

| | |
|---|---|
| Eduardo Murugarren Frances jauna. | *Don Eduardo Murugarren Francés.* |
| Joseba Royo García jauna. | *Don Joseba Royo García.* |
| Agurtzane Garijo Peralta andrea. | *Doña Agurtzane Garijo Peralta.* |
| Naiara Gartzia Royo andrea. | *Doña Naiara Gartzia Royo.* |
| Enrique Tenorio Ruiz jauna. | *Don Enrique Tenorio Ruiz.* |
| Luis Enrique de la Calle Moreno jauna. | *Don Luis Enrique de la Calle Moreno.* |
| Domingo Goñi Sarasola jauna. | *Don Domingo Goñi Sarasola.* |

Ana Balda San Juan andreak, Ana Santander Lizaso andreak eta Antonio Ollakarizketa Elizondo jaunak ez dute etortzerik izan.

*Excusan su asistencia Doña Ana Balda San Juan, Doña Ana Santander Lizaso y Don Antonio Ollakarizketa Elizondo.*

Idazkari lanetan, udalbatzarena, Eguzkiñe Aiesa Andres andrea.

*Asistida la Corporación por mí, la Secretaria Municipal, Doña Eguzkiñe Aiesa Andres.*

**1.- 2021ko irailaren 7an ospatutako Osoko Bilkuraren aktaren onarpena, hala badagokio.**

***1.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión plenaria del día 7 de septiembre de 2021.***

Aho batez onartu da 2021eko irailaren 7an ospatutako

*Se aprueba por unanimidad el acta del pleno del día 7*

osoko bilkuraren akta.

*de septiembre de 2021.*

**2.- Alkatetzaren ebazpenen berri ematea, 2021/224-tik 2021/276 ebazpenera.**

Udalbatza 2021/224 ebazpenetik 2021/276 bitarteko ebazpenez jakitun geratu da.

***2.- Dar cuenta de las resoluciones de alcaldía, desde la 224/2021 hasta la 276/2021.***

*El Pleno se da por enterado de las resoluciones 224/2021 a 276/2021.*

**3.- 2021/8 aurrekontu moldaketaren hasierako onespena, hala badagokio.**

Alkateak azaldu du Atakondoa ikastetxe publikoaren berokuntza sektorizatzeko obraren ondorioz egindako aldaketa dela, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak eta IDEAk diruz lagundutako obra honakoa. Aurrekontu moldaketa soberakinaren kontura egitea proposatzen da, horretarako aurrekontu - partidarik ez izateagatik. Gastuen gehikuntza, guztira, 57.233,00 eurokoa izango litzateke.

Gainera, aldaketa horrekin eta gai-zerrendako hurrengo puntuan jorratu behar den 2021/9 aurrekontu aldaketarekin diruzaintzako gerakina 372.420,71 eurotan geratzen dela zehaztu du.

Hitzen txanda irekita, ez da halakorik egon, eta, beraz, bozkatu egin da. Horrela, **Udalbatzak, bertaratutakoek aho batez hala erabakita, honakoa erabaki du:**

LEHENENGOA.- Aurrekontuaren 2021/8 moldaketa hasiera batez onartzea.

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean jasotakoaren arabera, onartutako

***3.- Aprobación inicial de la modificación presupuestaria 8/2021, si procede.***

*El Alcalde explica que se trata de una modificación hecha a raíz de la obra de la sectorización de la calefacción del Colegio Público Atakondoa, subvencionada por el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra y por el IDEA. La modificación se propone a cargo del remanente, por no haber contado con partida presupuestaria para ello. El total del incremento de gastos 57.233,00 euros.*

*Especifica, además, que con esta modificación y la 9/2021, a tratar en el siguiente punto del orden del día, el remanente de tesorería queda en 372.420,71 euros.*

*Abierto el turno de palabras, no las ha habido, por lo que se ha procedido a votar. Así, **el Pleno de la Corporación, por unanimidad de las personas presentes, acuerda:***

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 8/2021.*

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra y en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, por la que se regulan las Haciendas Locales,*

aurrekontu-moldaketak Idazkaritzan egongo dira 15 egun baliodunez ikusgai, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Epe hori igaro ondoren erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira aipatutako moldaketak.

*las modificaciones presupuestarias aprobadas se expondrán en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobadas definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen reclamaciones.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, Iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento.*

**4.- 2021/9 aurrekontu moldaketaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***4.- Aprobación inicial de la modificación presupuestaria 9/2021, si procede.***

Alkateak azaldu du 9/2021 aldaketaren helburua bikoitza dela: alde batetik, kiroldegiko galdara eskolaren galdararekin elkartzea, lehenengo galdara kentzeko, eta, bestetik, autokarabanen eremuko obra finantzatzea, 11.381 euroko gastu - igoera dakarrena. Guztira, 18.129,35 euroko moldaketa izango litzateke, diruzaintzako gerakinaren kargura egin beharrekoa.

*El Alcalde explica que la modificación 9/2021 es con doble fin, por un lado, para la unión de la caldera del polideportivo con la de la escuela, de modo que se elimina la primera y, por el otro, para la financiación de la obra del área de autocaravanas, que conlleva un incremento de gasto de 11.381 euros. En total, serían 18.129,35 euros, también a cargo del remanente de tesorería.*

Hitzen txanda hasita, Enrique de la Calle jaunak galdetu du ea autokarabanen gunearen inbertsioaren guztizko zenbatekoa 80.000 eurotik gorakoa den, eta alkateak erantzun dio 80.484 eurokoa dela guztira, seinaleztapenaren, altzarien, zuntzaren eta gainerakoen artean.

*Abierto el turno de palabras, don Enrique de la Calle pregunta si la cuantía total de la inversión del área de autocaravanas es de más de 80.000 euros, a lo que el Alcalde responde que asciende al total de 80.484 euros, entre señalización, mobiliario, fibra y demás.*

Hitzen txanda irekita, ez dago halakorik izan; gaia bozkatu da, eta **osoko bilkurak, aho batez, honako hau erabaki du:**

*Cerrado el turno de palabras, se somete el asunto a votación, ante lo que **el Pleno, por unanimidad, acuerda**:*

LEHENENGOA.- Aurrekontuaren 2021/9 moldaketa hasiera batez onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar inicialmente la modificación presupuestaria 9/2021.*

BIGARRENA.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean jasotakoaren arabera, onartutako aurrekontu-moldaketak Idazkaritzan egongo dira 15 egun baliodunez ikusgai, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ahal izan ditzaten. Epe hori igaro ondoren erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira aipatutako moldaketak.

*SEGUNDO.- De conformidad con lo dispuesto en la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra y en la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, por la que se regulan las Haciendas Locales, las modificaciones presupuestarias aprobadas se expondrán en Secretaría durante 15 días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes, entendiéndose aprobadas definitivamente, si transcurrido dicho plazo no se formulasen reclamaciones.*

HIRUGARRENA.- Honako akordioa udal webgunean, Iragarki Oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragartzea, ezaguera publikoa izan dezan.

*TERCERO.- Publicar este acuerdo en la web municipal, en el Tablón de Anuncios y en el Boletín Oficial de Navarra, para público conocimiento..*

**5.- 2022ko lan egutegiaren hasierako onespena, hala badagokio.**

***5.- Aprobación inicial del calendario laboral de 2022, si procede.***

Alkateak hartu du hitza eta 2022rako lan - egutegiaren proposamena azaldu du. Bertan, jaiegunak azaroaren 11 eta uztailaren 20, 21 eta 22a izantea proposatzen dela esan du, herriko jaiak uztailaren hirugarren asteazkenean hasten baitira. Zehaztu du egutegiaren proposamen hori udaleko langileekin partekatu dela, eta hauek beren adostasuna adierazi dutela.

*Toma la palabra el Alcalde explicando la propuesta del calendario laboral para el año 2022, en el que se fijan como días festivos el 11 de noviembre, así como el 20, 21 y 22 de julio, ya que las fiestas locales inician el tercer miércoles del mes de julio. Concreta que dicha propuesta del calendario se ha compartido con los y las trabajadoras municipales, que han mostrado su conformidad.*

Hitzik hartu ez denez, gaia bozkagai jarrita, **Udalbatzak, bertaratutakoen aho batez, honako erabakia hartu du:**

*Al no tomarse palabras, se somete a votación y **el Pleno, por unanimidad de los y las concejales presentes, adopta el siguiente Acuerdo:***

LEHENENGOA.- 2022. urterako lan egutegia onartzea.

*PRIMERO.- Aprobar el calendario laboral de 2022.*

BIGARRENA.- 2022. urterako lan egutegia NAOn argitaratzea.

*SEGUNDO.- Publicar el calendario laboral en el BON.*

**6.- 0-3 urteko haurrak haur-eskoletara joateagatiko familia- eta lan-bizitzarako laguntzen ebazpena, hala badagokio.**

***6.- Resolución de ayudas a la vida familiar y laboral por la asistencia de niños y niñas de 0 a 3 años a escuelas infantiles, si procede.***

Alkateak zehaztu du udal honekin hitzarmenik ez duten haur-eskoletara joateaz ari dela, eta Zuastikoarekin eta Jaunsarasekoarekin baino ez dagoela hitzarmenik.

*El Alcalde matiza que se trata de la asistencia a Escuelas Infantiles con las que este Ayuntamiento no tiene convenio, existiendo únicamente convenio con la de Zuasti y la de Jaunsaras.*

Saio honetan aztertu beharreko laguntza horietarako, bi eskabidek baldintzak betetzen dituzte: Javier Almirantearena Legaz jaunarenak eta Elisabet Martín Panadero andrearenak. Zenbatekoa, gehienez, 842 eurokoa izango da. Zenbateko hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira ikastetxera bertaratutako ehunekoa eta indarrean dagoen ordenantza arautzailean ezarritako gainerako baldintzak.

*Para estas ayudas a tratar en esta sesión, hay dos solicitudes que cumplen los requisitos, que son de Don Javier Almirantearena Legaz y la otra de Doña Elisabet Martil Panadero. La cuantía asciende a 842 euros de máximo, a calcular en atención al porcentaje de asistencia al centro educactivo y demás requisitos establecidos en la Ordenanza reguladora en vigor.*

**Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

***El Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- 2021. urteko kontziliaziorako diru - laguntzak onartzea eta ordaintzea, Haur Eskoletara joateagatik, espedientean jasotako proposamenarekin bat etorriz, Javier Almirantearena Legaz jaunak eta Elisabet Martil Panadero andreak ordezkatutako familia bakoitzari.

*PRIMERO.- Aprobar y abonar, de acuerdo con la propuesta obrante en el expediente, las subvenciones a la conciliación correspondientes al año 2021, en concepto de asistencia a Escuelas Infantiles, a cada una de las familias representadas por Don Javier Almirantearena Legaz y Doña Elisabet Martil Panadero.*

BIGARRENA.- Gorka Angulo Ansorena jaunaren eta Sergio Sandoval Caballero jaunaren familiari diru - laguntza ukatzea, baldintzak ez betetzeagatik.

*SEGUNDO.- Denegar a las familias de Don Gorka Angulo Ansorena y Don Sergio Sandoval Caballero por no cumplir los requisitos.*

HIRUGARRENA.- Aipatu diru - laguntza behin bertaratzea eta jardunaldi mota jusifikatuta ordainduko da.

*TERCERO.- La subvención se abonará previa justificación de asistencia y tipo de jornada.*

LAUGARRENA.- Honakoa interesdunei jakinaraztea.

*CUARTO.- Notificar este acuerdo a las personas interesadas para su conocimiento y efectos.*

**7.- %0'7aren deialdiaren ebazpena, hala badagokio.**

***7.- Resolución de la convocatoria del 0'7%, si procede.***

Alkateak deskribatu du horretarako eratutako lantaldeak aztertu dituela proposamenak. Gogorarazi du bi modalitate daudela: alde batetik, herrian errotuta dauden erakundeak, eta, bestetik, errotze hori ez dutenak, eta horien artean banatu dela ekitaldi honetan aurrekontuan sartutako zenbatekoa, 10.973 eurokoa, bi deialdien artean zati berdinetan banatuta.

*El Alcalde ha descrito que ha estudiado las propuestas el grupo de trabajo conformado al efecto. Recuerda que existen dos modalidades: De un lado, las entidades con arraigo en la localidad y, del otro, las que carecen de este arraigo, entre las que se divide la cantidad presupuestada, en este ejercicio de 10.973 euros, a partes iguales entre ambas convocatorias.*

Kasu honetan, Irurtzunen sustraituta dauden entitateen modalitatean, 2.743 euro ematea proposatzen da Itxipuru Taldeari eta Asociación Navarra de Amigos de la RASD elkarteari.

*En este caso, en la modalidad de entidades con arraigo en Irurtzun se propone conceder a cada 2.743 euros a las asociaciones Itxipuru Taldea y Asociación Navarra de Amigos de la RASD.*

Irurtzunen errotuta ez dauden erakundeei dagokienez, proiektu bakoitzari 1.829 euro ematea proposatzen da. Honako hauek dira proiektu horiek: el Salvador, Anas eta Mujeres en Red.

*En cuanto a las entidades sin arraigo en Irurtzun, se propone conceder a cada 1.829 euros a cada proyecto, que serían los siguientes: El Salvador, Anas y Mujeres en red.*

Proposamena bozkagai jarrita, **Udalbatzak, aho batez, honakoa erabaki du:**

*Sometida la propuesta a votación,* ***se adopta, por unanimidad, el siguiente acuerdo:***

LEHENENGOA.- Espediente honetan jasotako eta arestian deskribatutako laguntzak ematea eta ordaintzea.

*PRIMERO.- Conceder y abonar las ayudas descritas en este punto y recogidas en este expediente.*

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Nortificar este acuerdo a las personas interesadas.*

**8.- Hydro Extruded Solutions Navarra enpresak sustatutako Xehetasun Azterketaren onespena, hala badagokio.**

Alkateak xehetasun-azterketaren arrazoiaren laburpen labur bat egin du. Enpresak bi nabe erosi ditu Erabideko industrialdean; proiektu honen bidez, asmoa horietako bat gaur egun Nasuvinsari alokatuta daukanarekin batzea litzateke.

Xehetasun-azterlana udal zerbitzuen oniritziarekin onartu zen hasieran, eta jendaurreko erakustaldian ez da ez alegaziorik ez erreklamaziorik aurkeztu.

Afera bozkatuta eta Batzordearen aldeko irizpenarekin **Udalbatzak, bertaratutakoen aho batez, honako erabakia hartu du:**

LEHENENGOA.- Hydro Extruded Solutions Navarra enpresak sustatutako xehetasun - azterlanari behin betiko onarpena ematea. Horren arabera, eraikigarritasuna handitu gabe lerrokadurak birdefinituko dira Irurtzungo 2. poligonoko 758 eta 761 katastro - partzeletan, Inasako HJPBko 2.1 eta 2.4 partzelei dagokienez.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea xehetasun azterlanaren dokumentu teknikoarekin batera.

**9.- Covid-19aren ondorioz herriko merkataritza sustatzeko bonu kanpaina eta honen oinarri**

***8.- Aprobación del Estudio de Detalle promovido por Hydro Estruded Solutions Navarra, si procede.***

*El Alcalde hace un breve resumen del motivo del Estudio de Detalle. La empresa ha comprado dos naves en el polígono de Erabidea; la pretensión es la unión de una de estas con la que actualmente tiene arrendada a Nasuvinsa.*

*El Estudio de Detalle fue aprobado inicialmente con el visto bueno de los servicios municipales y en la fase de exposición pública no se han presentado ni alegaciones ni reclamaciones al mismo.*

*Sometida la propuesta a votación, el Pleno, con el Dictamen favorable de la Comisión,* ***por unanimidad de los y las concejales, aprueba el siguiente Acuerdo****:*

*PRIMERO.- Estudio de Detalle promovido por Hydro Estruded Solutions Navarra, consistente en la redefinición de alineaciones sin incremento de edificabilidad en las parcelas catastrales 758 y 761 del Polígono 2 de Irurtzun, relativas a las parcelas 2.1 y 2.4 del PEAU de Inasa.*

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a las personas interesadas para su conocimiento y efectos y publicarlo en el Boletín Oficial de Navarra junto con el documento técnico del estudio de Detalle.*

***9.- Aprobación de la campaña de bonos para incentivar el comercio del pueblo como consecuencia del Covid-19 y de sus bases***

**arautzaileen onespena, hala badagokio.**

Alkateak kanpainaren xehetasun nagusiak deskribatu ditu. 10.000 bonu jarriko dira salgai, bost euroan salduko direnak, eta bakoitzak hamar euroko balioa izango du.

Ez dago hitzartzerik, beraz, bozketari ekiten zaio. **Bertaratutakoen aho batez, Udalbatzak honako erabakiak hartu ditu:**

LEHENENGOA.- Kanpainaren oinarri arautzaileak onestea.

BIGARRENA.- Kanpaina espedientean jaso bezala martxan jartzeko onespena ematea.

**10.- Irurtzungo Udala Eskualdeko Osasun Kontseilura bertaratzeko eta hura ordezkatzeko izendapena.**

Alkateak azaldu duenez, Sasoia elkarteak, pandemian zehar lehen mailako asistentziaren aldarrikapenean jardun duenak, Irurtzungo Udalari eskatu dio honek Zonaldeko Osasun Kontseilua martxan jar dadin eska dezala.

Bozketara ekarri den proposamena da Aitor Larraza Carrera alkateak Irurtzungo Udala ordezkatzea Kontseilu horretan.

Gainera, alkateak oposizioko taldeari eskaintza egiten dio, nahi izanez gero, hark Kontseiluari eska diezaion Navarra Sumako kide bat bilera horietara joan dadin. Navarra Sumako tokiko taldeak Alkatetzak egindako eskaintzari uko egin dio.

Ez dago hitzartzerik eta **Udalbatzak, aho batez**,

***reguladoras, si procede.***

*El Alcalde describe los principales pormenores de la campaña. Recalca que saldrán a la venta 10.000 bonos, que se venderán por cinco euros, que tendrán una validez de diez euros cada uno.*

*No se toman palabras, por lo que se procede a la votación.* ***Por unanimidad*** *de las presentes, la Corporación adopta los siguientes* ***acuerdos:***

*PRIMERO.- Aprobar las bases reguladoras de la campaña.*

*SEGUNDO.- Aprobar la puesta en marcha de la campaña tal y como está recogido en expediente.*

***10.- Nombramiento de asistencia y representación, por parte del Ayuntamiento de Irurtzun, al Consejo de Salud de Zona.***

*El Alcalde explica que la asociación Sasoia, dedicada a lo largo de la pandemia a la reivindicación de la asistencia primaria, ha solicitado al Ayuntamiento de Irurtzun que este exija sea puesto en marcha el Consejo de Salud de Zona.*

*La propuesta que se trae a votación es que el Alcalde, Don Aitor Larraza Carrera, sea quien represente al Ayuntamiento de Irurtzun en dicho Consejo.*

*Además, el Alcalde hace el ofrecimiento al grupo de la oposición para que, en caso de así desearlo este, aquel solicitará al Consejo que un miembro de Navarra Suma pueda asistir a estas reuniones, propuesta esta rechazada por el Grupo Municipal de Navarra Suma.*

*No hay toma de palabras y* ***el Pleno, por unanimidad,***

honakoa erabaki du:

*acuerda:*

BAKARRA.- Aitor Larraza Carrera jauna Irurtzungo Udalaren ordezkari izendatzea Eskualdeko Osasun Kontseiluan.

*ÚNICO.- Nombrar a Don Aitor Larraza Carrera representante del Ayuntamiento de Irurtzun en el Consejo de Salud de Zona.*

**11.- Nitxoa betiko uztea, hala badagokio.**

***11.- Cesión de nicho a perpetuidad, si procede.***

Alkateak esan du Concepción Espartero Guelbenzu andreak betiko nitxoaren eskaera egin duela.

*El Alcalde dice que se ha recibido solicitud de nicho a perpetuidad por parte de Doña Concepción Espartero Guelbenzu.*

**Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:**

***El Pleno, por unanimidad, acuerda:***

LEHENENGOA.- D eremuko E kaleko 37. nitxoa Concepción Espartero Guelbenzu andreari betiko uztea.

*PRIMERO.- Ceder a perpetuidad el nicho Nº 37 de la calle E de la zona D a Doña Concepción Espartero Guelbenzu.*

BIGARRENA.- Honako akordioa eskatzaileari jakinaraztea.

*SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a la persona solicitante.*

HIRUGARRENA.- Eskatzaileari jakinaraztea lagapen horrengatik ordaindu beharreko tasa 749,00 eurokoa dela. Ordaintzeko epea hilabetekoa dela, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

*TERCERO.- Notificar a la solicitante que la tasa a abonar por esta cesión asciende a 749,00 euros a abonar en el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la notificación de este acuerdo.*

**12.- Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko nazioarteko egunaren inguruko adierazpenaren onespena, hala badagokio.**

***12.- Aprobación de la declaración sobre el día internacional para la erradicación de la violencia contra las mujeres, si procede.***

Alkateak NUKFk proposatutako adierazpenaren laburpena egin du, jasotzen dituen konpromisoak zehaztuz:

*El Alcalde hace un resumen de la declaración propuesta por la FNMC, concretando que los compromisos que la misma recoge:*

- Arbuioa emakumeen aurkako indarkeria-mota ororekiko, edozein arlo eta testuingurutan.

*- Rechazo hacia todas las formas de violencia contra las mujeres, en cualquier ámbito y contexto.*

- Konpromisoa tokiko entitateen agenda politikoan emakume eta neskatoen indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea bermatzen duten neurriak txertatzeko.

*- Compromiso para incorporar a la agenda política de las entidades locales medidas que garanticen el derecho de las mujeres y niñas a una vida libre de violencias.*

- Konpromisoa emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko jarduketak koordinatzeko tokiko protokoloak bermatzeko, eta sentsibilizazioan, prebentzioan, arretan, esku-hartzean eta erreparazioan lanean jarraitzeko.

*- Compromiso para garantizar los protocolos locales para la coordinación de la actuación ante la violencia contra las mujeres, y continuar trabajando en los ámbitos de sensibilización, prevención, atención, intervención y reparación.*

Horretaz gain, bere taldeak Udalak kontzentraziorako deia egitea proposatzen duela adierazi du, mota horretako ekitaldiak sostengatzen dituzten gainerako eragileekin koordinatuta.

*Además, señala que su grupo propone que el Ayuntamiento haga llamamiento a la concentración, en coordinación con el resto de agentes que sustentan este tipo de actos.*

Hitzen txanda irekita, ez da egon eta, hortaz, **Udalbatzak, aho batez**, onarko erabakiak hartu ditu:

*Abierto el turno de palabras no las ha habido y, por tanto,* ***la Corporación, por unanimidad****, ha decidido:*

LEHENENGOA.- Proposatutako deklarazioa onestea.

*PRIMERO.- Aprobar la declaración propuesta.*

BIGARRENA.- Azaroaren 25ean egingo den elkarretaratzerako deia egitea.

*SEGUNDO.- Hacer llamamiento a la concentración que se celebrará el 25 de noviembre.*

**13.- Erregu eta galderak.**

***13.- Ruegos y preguntas.***

Enrique jaunak galdetu du ea berririk dagoen sahiesbidearen gaian. Alkateak azaldu du oraindik ez dagoela jasota hasiera – data zein izango den, baina azaroaren erdialdera izatea espero dela. Badaki obra esleitu dela eta zuzendaritza izendatu dela, eta zehazten du osoko bilkura honen egunean bertan argitaratu dela esleipena Kontratazioaren Atarian. Kontratuaren etetearen epea igarotakoan, obra hasiko dela ulertzen da.

*Don Enrique pregunta si hay novedades en el tema de la variante. El Alcalde explica que todavía no consta la fecha de inicio, pero que se espera sea a mediados de noviembre. Tiene constancia de la adjudicación de la obra y de la designación de la dirección, y especifica que el mismo día de esta sesión plenaria ha sido publicada la adjudicación en el Portal de Contratación. Se entiende que pasado el plazo de suspensión del contrato, se iniciará la obra.*

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez eta iluntzeko 19:55ak direnean, Presidenteak bilera amaitutzat eman du, eta nik, Idazkari naizen aldetik, akta hau jaso eta ZIURTATZEN DUT.

*Y no habiendo más temas que tratar y siendo las 19:55 horas, el Presidente levanta la sesión, de la que extiendo el presente Acta que, como Secretaria, CERTIFICO.*

33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)

Firmado digitalmente por 33440403J AITOR LARRAZA (R: P3190400F)
Fecha: 2021.11.26 15:27:51 +01'00'

ZIURTATZEN DUT

Alkatea / *El Alcalde*,
Aitor Larraza Carrera

Idazkaria / *La Secretaria*
Eguzkiñe Aiesa Andres